

LEGE OHARRA

Webgune honen titularra ARABAT-ARABAKO BIDEAK SA da (egoitza soziala: Vicente Goikoetxea kalea 1, 01008 Gasteiz, Araba; IFK: A-01361237; helbide elektronikoa: info@arabat.org; Arabako Merkataritza Erregistroan inskribatuta, 1121 liburukian, 106 folioan, VI-9741 zenbakiko orrian —1. inskripzioa—).

Webgune hau zein honen edozein azpidomeinu, mikrogune edo azpiatal erabiltzen baduzu, ulertuko da irakurri, ulertu eta inolako muga eta salbuespenik gabe onartu dituzula lege ohar honetan eta pribatutasun politikan jasotako erabilera baldintzak (pribatutasun politika webgune honetan daukazu eskura eta berariaz gomendatzen dizugu hura irakurtzea). Webgunea erabiltzeak esan nahi du berariaz eta guztiz onartzen duzula bai lege oharra bai pribatutasun politika, hain zuzen webgunera sartzen zaren unean argitaratuta dagoen bertsioa. Halaber, webguneko zerbitzu jakin batzuk erabiltzeko baldintza edo zehaztapen bereziak jar daitezke, eta haiek nahitaez onartu beharko dira zerbitzu horiek erabili ahal izateko.

Lege ohar honetan adierazitakoarekin ados ez bazaude, mesedez, ez erabili webgune hau; izan ere, webgunea erabiltzeak, gorago esan bezala, berekin dakar lege oharrean eta pribatutasun politikan jasotako legezko baldintzak onartzea.

ARABAT-ARABAKO BIDEAK SAK beretzat gordetzen du webgune honetan agertzen diren baldintzak eta zehaztapenak aldatzeko eskubidea, bai eta edozein unetan eta aurrez ohartarazi gabe edukiak, informazioa eta bestelakoak gehitzeko ere eta, beraz, aldi behin sartu eta ikustea aholkatzen dizu, aldaketaren bat egiten bada ere.